

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure salmenta denda fisiko batean izango da. Baina produktua (eta horren inguruko informazioa eta deskontuak) bai fisikoki bai gure web orriaren bitartez ikusi daitezke. Bezeroek enpresaren telefonora deitu dezakete arazo edo dudaren bat izanez gero eta baita web orriaren bidez kontaktuan jarri. Nahi izanez gero, deskontuen eta berrikuntzen berri emango zaie helbide elektronikoaren bitartez.



Kamioien banaketa enpresa bat kontratatuko dugu aurreikusitako puntuetara produktua helarazteko. Bai udala edo bezeroa den beste erakunde bati produktua eramateko eta beraiek, bankuak eraikiko dituen enpresa publiko zein pribatua kontrata ditzaten. Edo baita ere, gurekin elkarlanean dauden langileak (bankuak eraikitzen dituztenak) dauden lekura.

